**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2017ko AZAROAK 28 / 28 - NOVIEMBRE - 2017**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2017/11/28

**HASIERA / INICIO:** 17:00ETAN

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna, desde las 17:15 horas (punto 4 del orden del día)
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA**
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea (EAJ/PNV)

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2017KO UZTAILAREN 18KOA OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 18 DE JULIO DE 2017.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2017ko uztailaren 18koa ohikoa hain zuzen ere.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión correspondiente a la ordinaria de 18 de Julio de 2017.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Plenoko aktaren inguruan, atzo Bozeramaleen Batzordean erabaki genuen mahai gainean uztea; beraz, hurrengo puntura pasatuko gara.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Sobre el acta del pleno, ayer en la Junta de Portavoces decidimos dejarla sobre la Mesa, así que pasamos al siguiente punto.

Beraz, **2017ko uztailaren 18ko** akta ohikoa **mahai gainean geratzen da**.

Por lo tanto, **queda sobre la Mesa**, pendiente de aprobación, el acta de la sesión ordinaria del **18 de Julio de 2017**.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

- **EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN IDATZIA, MARIA SOLEDAD JUARISTI ALBERDI ANDREA, KARGUA UTZI DUEN ROSA MINTEGI EGILEOR ANDREA ORDEZKATZEN DUENA, ZEIN UDAL BATZORDETARA JOANGO DEN JAKINARAZIZ: UDALEKO INFORMAZIO BATZORDEAK, ERAKUNDE AUTONOMOETAKOAK ETA UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEETAKOAK.**

- **OROBAT. JAKINARAZTEKO TALDE BEREKO ORDEZKARI BAT ORDEZKATZEN DELA DURANGO MERINALDEKO AMANKOMUNAZGOAN.**

- **HERRIAREN ESKUBIDEA UDAL TALDEAREN IDATZIA, EUREN TITULAR ETA ORDEZKOEN BERRI EMANEZ INFORMAZIO BATZORDEETAN, ERAKUNDE AUTONOMOETAN ETA SOZIETATE ANONIMOETAN, KONTUAN IZANDA FRANCISCO JAVIER LOPEZ LAKUNZA JAUNAK ZINEGOTZI KARGUA HARTU DUELA KARGUA UTZI DUEN MARIA JULIANA PERERA FIGUEREDO ANDREAREN ORDEZ.**

- **ESCRITO DE LA REPRESENTACIÓN DE EUSKAL HERRIA BILDU, INDICANDO LAS COMISIONES INFORMATIVAS, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y ORGANISMOS SUPRAMUNICIPALES A LAS QUE ACUDIRÁ LA CONCEJALA DOÑA MARIA SOLEDAD JUARISTI ALBERDI, EN SUSTITUCIÓN DE LA CONCEJALA CESANTE, A PETICIÓN PROPIA, DOÑA ROSA MINTEGI EGILEOR.**

- **IDEM. IDEM. COMUNICANDO LA SUSTITUCIÓN DE UN REPRESENTANTE DE SU GRUPO EN LA MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO.**

- **ESCRITO DE LA REPRESENTACIÓN DE HERRIAREN ESKUBIDEA, INDICANDO LOS TITULARES Y SUPLENTES DE SU GRUPO EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES ANÓNIMAS, DADA LA TOMA DE POSESIÓN DEL CONCEJAL DON FRANCISCO JAVIER LÓPEZ LAKUNZA, EN SUSTITUCIÓN DE LA CONCEJALA CESANTE, A PETICIÓN PROPIA, DOÑA MARIA JULIANA PERERA FIGUEREDO.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Zuzenketak hauexek dira: Berdintasun Batzordean eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordean Rosa Mintegi Egileor andrearen ordez Maria Soledad Yolanda Juaristi andrea egongo da.

Erakunde Autonomoetan, bai Euskaltegian eta baita Astarloa Kulturgintzan ere, Rosa Mintegi Egileor andrearen ordez Maria Soledad Yolanda Juaristi andrea egongo da.

Udalez kanpoko erakundeetan, Haurreskolen Partzuergoan eta Julene Azpeitian Rosa Mintegi Egileor andrearen ordez Eider Uribe Padilla andrea egongo da, eta Baserritarren Mahaian Rosa Mintegi Egileor andrearen ordez Aritz Bravo Zubillaga jauna egongo da.

2. puntuan, jakinarazten da Talde bereko ordezkari bat ordezkatzen dela Durango Merinaldeko Amankomunazgoan, hain zuzen ere, Jon Andoni del Amo Castro jaunaren ordez Aritz Bravo Zubillaga jauna izango da ordezkaria.

3. puntuan, Herriaren Eskubidea Udal taldearen idatzia euren titular eta ordezkoen berri emanez Informazio Batzordeetarako, Erakunde Autonomoetarako eta Sozietate Anonimoetarako, kontuan izanda Francisco Javier Lopez Lakunza jaunak Zinegotzi kargua hartu duela kargua utzi duen Mª Juliana Perera Figueredo andrearen ordez. Era horretan Herriaren Eskubideko ordezkaritza ondokoa izango da:

- ✓ Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingo Batzordean, Jorge Varela Dorrio jauna.
- ✓ Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Batzordean, Julian Rios Santiago jauna.
- ✓ Garapen Iraunkorra eta Herritarren Partaidetzan Batzordean, Julian Rios Santiago jauna.
- ✓ Gazteria eta Kirolak Batzordean, Julian Rios Santiago jauna.
- ✓ Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordean, Francisco Javier López Lakunza jauna.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Estas son los cambios: en la Comisión de Igualdad y en la Comisión de Euskera, Cultura y Educación, estará Doña María Soledad Yolanda Juaristi en lugar de Doña Rosa Mintegi Egileor.

En los Organismos Autónomos, tanto en el Euskaltegi como en Astarloa Kulturgintza, estará Doña María Soledad Yolanda Juaristi en lugar de Doña Rosa Mintegi Egileor.

En los Organismos que no están dentro del Ayuntamiento, Doña Eider Uribe Padilla estará en el Consorcio Haurreskolak y en Julene Azpeitia en lugar de Doña Rosa Mintegi Egileor, y Don Aritz Bravo Zubillaga en la Mesa de *Baserritarras* en lugar de Doña Rosa Mintegi Egileor.

En el segundo punto se informa de que un integrante del mismo Grupo sustituirá a un compañero en la Mancomunidad de la Merindad de Durango; concretamente, será Don Aritz Bravo Zubillaga quien sustituya a Don Jon Andoni del Amo Castro.

En el punto tercero, se informa sobre los titulares y los suplentes del Grupo municipal Herriaren Eskubidea para las Comisiones Informativas, los Organismos Autónomos y las Sociedades Anónimas, teniendo en cuenta que Don Francisco Javier López Lakunza ha tomado posesión de su cargo de Concejal en sustitución de Doña Mª Juliana Perera Figueredo, que ha abandonado su cargo. Por tanto, ésta será la representación de Herriaren Eskubidea:

- ✓ En la Comisión de Hacienda, Personal y Policía Municipal, Don Jorge Varela Dorrio.
- ✓ En la Comisión de Urbanismo, Obras y Vivienda, Don Julián Ríos Santiago.
- ✓ En la Comisión de Desarrollo Sostenible y Participación Ciudadana, Don Julián Ríos Santiago.
- ✓ En la Comisión de Juventud y Deporte, Don Julián Ríos Santiago.
- ✓ En la Comisión de Euskera, Cultura y Educación, Don Francisco Javier López Lakunza.

- ✓ Gizarte Ekintza eta Enplegua Batzordean, Francisco Javier Lopez Lakunza jauna.
- ✓ Berdintasunerako Batzordean, Jorge Varela Dorrio jauna.
- ✓ Astarloa Kulturgintzan, Jorge Varela Dorrio jauna.
- ✓ Bartolome Ertzillan, Jorge Varela Dorrio jauna.
- ✓ Durangoko Euskaltegian, Julian Ríos Santiago jauna.
- ✓ Durango Kirolaken, Julian Ríos Santiago jauna.
- ✓ Durango Eraikitzenen, Julian Ríos Santiago jauna
- ✓ Landako Erakustazokan, Jorge Varela Dorrio jauna.

Gainerako gaien inguruko informazioa zuen esku egon da eta egongo da Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEAREN HITZARMENEKO DIRU-PARTIDA HANDITZEKO ONARPENA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2017KO URRIAREN 26KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen irizpena 2017ko urriaren 26koa, eta honako hau dioena:

*"Udaleko euskara, kultura eta hezkuntza argibide batzordeak, 2017ko urriaren 26an egindako batzarrean, Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin 2017. urterako izenpetutako hitzarmenaren zenbatekoa handitzeari buruzkoa irizpena hartu zuen. Hortaz, kreditu-aldaketa egiteko*

- ✓ En la Comisión de Acción Social y Empleo, Don Francisco Javier López Lakunza.
- ✓ En la Comisión de Igualdad, Don Jorge Varela Dorrio.
- ✓ En Astarloa Kulturgintza, Don Jorge Varela Dorrio.
- ✓ En Bartolome Ertzilla, Don Jorge Varela Dorrio.
- ✓ En el Euskaltegi Municipal, Don Julián Ríos Santiago.
- ✓ En Durango Kirolak, Don Julián Ríos Santiago.
- ✓ En Durango Eraikitzen, Don Julián Ríos Santiago.
- ✓ En Landako Erakustazoka, Don Jorge Varela Dorrio.

La información sobre el resto de los asuntos ha estado disponible y continuará estándolo en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**TRES.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL INCREMENTO EN EL CONVENIO SUSCRITO CON BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA PARA 2017. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 26 DE OCTUBRE DE 2017).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación, de 26 de Octubre de 2017, del tenor literal siguiente:

*"La Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2017, adoptó informe favorable en relación con el incremento del convenio suscrito con Bizkaiko Bertsozale Elkartea. En consecuencia, y a la vista de que existe*

*aurrekontua dagoela ikusirik, aipatutako hitzarmena 3.000 eurotan handitzea proposatzen da.*

*Kreditu-aldaketa hau egiteko arrazoia da, "Gu ere bertsotan" ekimena, iaz arte lehen hezkuntzan baino egiten ez zena, 2017tik aurrera, DBHko ikasleei ere hedatu zaiela. Besteak beste, hauxe dira eginkizun berriak:*

- *DBHn gaztetxoen bat-bateko taldeen sorrera sustatzea, hau da, eskola orduz kanpo eta borondatez, bakoitzaren ikastetxean bertan eta metodologia ludikoago baten bidez, gaztetxoak bertsotan bat-batean egiteko trebatuko dituzten taldeen sorrera sustatzea.*
- *Bat-bateko taldeak sortu ondoren, bat-batean egiteko trebatzeaz gain, gai-jartzaile, epaile eta saioetako antolatzaile figura ezagutzea eta nola lan egiten duten ikastea.*
- *Bat-bateko talde hauetan parte hartzen duten ikasleei Bertso Eskolarako bidea erakustea.*
- *Jasotako diru-laguntza 2018ko otsailaren 28a baino lehen justifikatu behar da. Gastu-justifikazioarekin batera, hitzarmen honetan jasotako konpromisoak bete izanaren gaineko egiaztagiriak ere aurkeztu behar dira.*

*Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Presidenteak, Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin sinatutako hitzarmena 3.000 eurotan handitzea bozkatzea proposatu zuen. Bozketaren emaitza:*

*Alde: 6; Olaia Albizu eta Iker Oceja (EAJ/PNV), Jon Andoni del Amo eta Maria Soledad Yolanda Juaristi (EH Bildu), Jorge Varela (Herrien Eskubidea) eta Mauricio García PSE-EE (PSOE).*

*Hortaz, Euskara, Kultura eta Hezkuntza argibide batzordeak aldeko irizpena eman ondoren kreditu-aldaketa honi, berau, Udaleko osoko bilkuran aurkeztuko da aztertu eta, hala badagokio, onartua izan dadin."*

*crédito presupuestario para tal fin, se propone incrementar el citado en convenio en 3.000 euros.*

*El motivo de la modificación de crédito es que el proyecto "Gu ere bertsotan", que anteriormente se llevaba a cabo solo en enseñanza primaria, a partir de 2017 se ha extendido a los/as alumnos/as de la ESO. Estas son las nuevas tareas:*

- *Impulsar la creación de grupos de improvisación en ESO, fuera del horario escolar y de modo voluntario, en los centros escolares y a través de una metodología lúdica. Esto es, se crearán grupos para que los/as jóvenes se inicien en la improvisación de bersos.*
- *Una vez creados los grupos, además de familiarizarse con la improvisación, conocerán los modos de actuación de gai-jartzailes, jueces y organizadores de festivales de bersos.*
- *A los alumnos que participen en los grupos de improvisación se les abrirá la puerta de acceso hacia las bertso eskolas.*
- *La justificación de la subvención recibida, junto con la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos, deberá realizarse antes del 28 de febrero de 2018.*

*La Presidenta de la Comisión de Euskera, Cultura y Educación sometió a votación el incremento en 3.000 euros del convenio suscrito con Bizkaiko Bertsozale Elkartea. El resultado de la votación:*

*A favor: 6; Olaia Albizu e Iker Oceja (EAJ/PNV), Jon Andoni del Amo y Maria Soledad Yolanda Juaristi (EH Bildu), Jorge Varela (Herrien Eskubidea) y Mauricio García PSE-EE (PSOE).*

*En consecuencia, la Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación emite dictamen favorable en relación a esta modificación de crédito y lo eleva a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Durangarrok pribilegioa dugu, euskal lurretako gure bizilagunek bezala, historiaren, jendearen, eta ohituren bidez benetako altxorrak ditugulako... eta zergatik ez aipatu gaur egungo erakundeen babesari esker ditugula horiek guztiak? Gugana iritsi dira, eta bizirik eta presente daude gure egunerokotasunean. Bai, horrek zalantzarik gabe zorioneko egiten gaitu.

Altxor ugari horietako bat, gaur aipagai duguna, gure gazte bertsolariak dira eta, oraintxe aipatu dudan moduan, haien jarraikortasuna ahalbidetu behar duen faktoreetako bat, zalantzarik gabe, erakundeen babesa da.

Kasu honetan, Durangoko Udalaren izenean, BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEArekin egindako hitzarmenari zenbatekoa handituz babes handiagoa eskainita. Hitzarmen horrekin, orain arte lehen hezkuntzara soilik iristen zen lana DBHko ikasleengana ere iristea nahi dugu, eta hala, orain arte goraipatzen aritu naizen babesarekin jarraitu.

Zalantzarik gabe, aldeko botoa emango dugu.

* **Lopez Lakunza jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Gure taldea alde dago eta bakarrik aipatu nahiko genuke elkarte honen lana bikoitza dela; alde batetik, euskararen erabilera sustatzen du, eta, bestetik, gazteei ahalik ea arinen gure kulturaren ezaugarriak transmititzen zaizkie.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Ados gaude honekin, programa oso interesgarria iruditu zaigu betidanik eta gainera uztartzen ditu hezkuntza eta kultura. Hutsune bat egon da, eta egia esan, luzapen honekin lortzen da hutsune hori betetzea. Alde bozkatuko dugu.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Aldeko bozka emango diogu.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Las y los durangueses tenemos el privilegio, al igual que nuestros convecinos de tierras euskaldunes, de contar con verdaderos tesoros que, a través de la historia, las gentes, y sus costumbres ... y ¿por qué no citar también que gracias al apoyo de las instituciones en la actualidad? han llegado a nosotros, y están vivos y presentes en nuestros días. Sí, ello nos hace sin duda afortunados.

Uno de esos tesoros, tan numerosos, el que hoy nos ocupa, son nuestros jóvenes bertsolaris, y, como he citado hace un momento, uno de los factores que deben favorecer su continuidad es, sin duda, la labor de apoyo de las instituciones.

En este caso como Ayuntamiento de Durango, dando un mayor apoyo con este incremento en importe al convenio con BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA con el que pretendemos que la labor que hasta ahora llegaba a la enseñanza primaria en los centros educativos llegue a los alumnos de la ESO también, y continuar de este modo con el apoyo que he venido elogiando.

Sin duda, votaremos a favor.

* Concejal **Sr. Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea)**: Nuestro Grupo está a favor, y solo quisiera mencionar que el trabajo de esa asociación es doble: por un parte, fomenta el uso del euskera, y por otra, transmite a la juventud lo más rápido posible las características de nuestra cultura.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Estamos de acuerdo. El programa siempre nos ha parecido muy interesante, y además une educación y cultura. Ha existido un vacío, y con esta prolongación se consigue llenarlo. Votaremos a favor.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Votaremos a favor.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, **ONARTZEN DU** BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEAREKIN aldeko Hitzarmen nominatiboaren diru kopurua handitzea hiru mila (3.000,00) euro gehiago emanez.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, **APRUEBA** la ampliación del Convenio nominativo a favor de BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA para el ejercicio 2017, por un importe de tres mil (3.000,00) euros.

**LAU.- BIDEZKOA BALITZ, EUSKARA UDAL KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ONARPENA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2017KO AZAROAREN 16KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen irizpena 2017ko azaroaren 16koa, eta honako hau dioena:

"*Gai hau 2017ko urriaren 26an eta azaroaren 16an egindako bileretan aztertu izan da.*

*Batzordeko presidente Olaia Albizu Gallastegi andreak prozesuan zehar emandako urratsak azaldu zituen urriaren 26ko bileran.*

*Duela urtebete inguru, Berbaro, Anboto, Plateruena eta Topaguneko ordezkariak bildu ziren Olaia Albizurekin Durangoko euskara talde ezberdinen komunikazioa hobetzeko asmoz. Azkenean pentsatu zuten elkarren arteko komunikazioa indartzeko modurik eraginkorrena Euskara Udal Kontseilua sortzea zela eta, Euskara Teknikarien laguntzarekin, Euskara Udal Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudia prestatu eta euskara, kultura eta hezkuntza batzordean aurkeztu zen 2017ko urriaren 26an.*

*Gerora, Jorge Varela Dorrio jaunak eta Jon Andoni del Amo Castro jaunak aldaketa batzuk egitea proposatu dute.*

**CUATRO.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO MUNICIPAL DE EUSKERA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 16 DE NOVIEMBRE DE 2017).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación, de 16 de Noviembre de 2017, del tenor literal siguiente:

"*Este asunto ha sido sometido a estudio en las sesiones celebradas el 26 de octubre y 16 de noviembre de 2017.*

*La presidenta de la Comisión Doña Olaia Albizu Gallastegi da cuenta en la sesión de 26 de octubre de los pasos dados a lo largo del proceso.*

*Hace aproximadamente un año se reunió con representantes de Berbaro, Anboto, Plateruena y Topagunea con la idea de mejorar la comunicación entre las diferentes asociaciones de euskera de Durango. Finalmente, llegaron a la conclusión de que el modo más efectivo para ello era crear el Consejo Municipal de Euskera y, con la colaboración de los Técnicos municipales de Euskera, diseñaron el borrador del reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Municipal de Euskera que fue presentado en la citada sesión de 26 de octubre de 2017.*

*Posteriormente, Don Jorge Varela Dorrio y Don Jon Andoni del Amo Castro propusieron unas modificaciones al texto.*

*Azkenik, 2017ko azaroaren 16ko bileran, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Presidente Olaia Albizu Gallastegi andreak, testuari eginiko aldaketak txertatu ondoren, euskara udal kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudia bozkatzea proposatu zuen.*

*Bozketaren emaitzak:*

*Alde: 5; Olaia Albizu Gallastegi andrea eta Iker Oceja Sobron jauna (EAJ/PNV), Jon Andoni del Amo Castro jauna eta Maria Soledad Yolanda Juaristi andrea (EH Bildu); eta Francisco Javier Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea).*

*Abstentzioa: 1; Francisco Garate Mintegui jauna (PP).*

*Hortaz, Euskara, Kultura eta Hezkuntza argibide Batzordeak Durangoko Euskara Udal kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudiari aldeko irizpena eman ondoren, testua, Udaleko osoko bilkurari helaraziko dio berau aztertu eta, hala badagokio, onartua izan dadin*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Euskararen Udal Kontseilua martxan jartzean parte hartu duten guztiei eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiegu. Durangoko euskara-elkarteen artean komunikazioak eta harremanak hobetuko ditugula espero dugu kontseiluarekin, eta horretarako lan egingo dugu ahal dugun neurrian.

Kontsulta- eta informazio-izaera izango duen udalkontseilua izango da, eta talde, elkarte eta erakunde publiko nahiz pribatu ugarien artean eta hizkuntzaren normalizazioaren arloan inplikatutako pertsona fisikoen artean topagune gisa baliatu ahal izango da.

Zoriondu eta eskerrak eman behar ditugu, era berean, ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUDIA egiteagatik. Araudiarekin desadostasun batzuk baditugu, agian logikoak, puntu zehatzen batean. Baina, oro har, funtsean, forman eta helburuan, ados gaude.

*Finalmente, el 16 de noviembre de 2017, la Presidenta de la Comisión de Euskera, Cultura y Educación sometió a votación el reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Municipal de Euskera, incluyendo las modificaciones realizadas.*

*Resultado de la votación:*

*A favor: 5; Doña Olaia Albizu Gallastegi y Don Iker Oceja Sobrón (EAJ/PNV), Don Jon Andoni del Amo Castro y Doña Maria Soledad Yolanda Juaristi (EH Bildu); y Don Francisco Javier Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea).*

*Abstención: 1; Don Francisco Garate Mintegui (PP).*

*En consecuencia, la Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación emite dictamen favorable en relación al Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Municipal de Euskera y lo eleva a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Queremos agradecer y felicitar a todos quienes han participado en la puesta en marcha de este Consejo Municipal del Euskera del que esperamos - y para ello en la medida que nos sea posible vamos a contribuir- que nos lleve a una mejora de las comunicaciones y relaciones entre las diferentes asociaciones del euskera en Durango.

Un consejo municipal con carácter consultivo e informativo que deberá servir de encuentro entre los diversos grupos, asociaciones, e instituciones, tanto públicas como privadas, y personas físicas implicadas en la tarea de la normalización lingüística.

Nos felicitamos y agradecemos, asimismo, por la elaboración de su REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO, con el que tenemos algunas discrepancias, tal vez lógicas, en algún punto concreto. Pero con el que estamos en general, en el fondo, en la forma, y en el objetivo, de acuerdo.

Kontseiluaren lanak, ARAUDIA barne, helburuak lortuko dituela espero dugu, eta horietatik haren atarikoan dagoeneko aipatzen direnak nabarmendu nahi ditut. Honako hauek dira: ".... *bi hizkuntza ofizialak baldintza berdinetan garatzea*...", "...*elebitasun erreala lortzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea*...".

Berriz ere eskertu eta zorionak eman nahi ditugu egindako lanagatik eta aldeko botoa emango dugula aurreratzen dugu.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Eskerrak ematen dizkiogu kontseiluan parte hartzen duen jendeari bere lanagatik; pozik eta ados gaude gaur ekartzen den araudi honekin.

* Concejal **Sr. Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea)**: Gure Taldeak begi onez ikusten du kontseilu hau sortzea. Beti esan dugun bezala, edozein kontseilu edo herritarren parte hartzeko tresnaren bidez erakundeak zabaltzen diren bitartean aurrepausuak izango dira.

***-- Momentu honetan, 17:15ak direnean, Maeztu Perez (EH Bildu)ko Zinegotzi jauna Batzar Aretoan sartzen da.--***

* **Juaristi Alberdi andreak (EH Bildu)**: Euskara Kontseilua martxan jartzea aurrerapausu garrantzitsua izan daitekeela uste dugu. Guk beti defendatu ditugu eta defendatzen jarraituko dugu euskararen normalizaziorako ematen diren urrats guztiak. Bide horretan akuilu lanak egiteko prest gaude, gure eguneroko lanak hori erakusten du. Aurrerapausuak eman dira, ezagutza handitzen doa, baina erabilera ez da zabaltzen ari proportzio berean.

Azken ikerketaren arabera, 2016koa, ezagutza %60an kokatzen da baina kaleko erabilera %20an. Espero dugu kontseilu honen erronka nagusiena herritarrok euskara ikastera eta erabiltzera motibatuko dituen plangintzak diseinatu eta aurrera eramatea izango dela; hau da, ez dakitenek euskara ikas dezaten laguntzen jarraitu eta dakitenen erabilera kalean eta esparru ez-formaletan hedatu, batez ere.

Deseamos que la labor del consejo, contando con este REGLAMENTO, alcancen sus objetivos, de los cuales quiero recalcar algunos que ya se citan en el preámbulo del mismo. Estos son: ".... *que las dos lenguas oficiales se desarrollen en igualdad de condiciones*...", "...*lograr un bilingüismo real y garantizar los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía*...".

Nuevamente queremos agradecer y felicitar por la labor realizada y anticipar que votaremos a favor.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Queremos dar las gracias por su trabajo a las personas que participan en el Consejo, estamos de acuerdo y satisfechos con este reglamento que se ha traído hoy.

* Concejal **Sr. Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea)**: Nuestro Grupo ve con buenos ojos que se cree el Consejo. Como siempre hemos expresado, abrir las instituciones mediante cualquier consejo o herramienta de participación de la ciudadanía supone un progreso.

***-- En este momento, siendo las 17:15 horas, entra en la Sala Capitular el Concejal Sr. Maeztu Perez (EH Bildu).--***

* Concejala **Sra. Juaristi Alberdi (EH Bildu)**: Consideramos que poner en marcha el Consejo del Euskera puede ser un progreso importante. Siempre hemos defendido y continuaremos defendiendo todos los pasos que se den para la normalización del euskera. En ese camino, estamos dispuestos a trabajar para estimular la normalización, y eso es lo que muestra nuestro trabajo diario. Ha habido progresos, el conocimiento va aumentando, pero el uso no se está extendiendo en la misma proporción.

Según la última investigación, de 2016, el conocimiento se sitúa en el 60 %, pero el uso, en cambio, en el 20 %. Esperamos que el reto principal del Consejo sea diseñar y llevar a cabo planes cuyo objetivo sea motivar a la ciudadanía para que aprendan y usen el euskera; es decir, que se continúe ayudando a aprender euskera a quienes no lo hablan, y extender el uso de quienes sí lo hablan a la calle y a ámbitos no formales.

Horretan administrazioak ere ahalegin berezia egin behar du. Beharrezkoa ikusten dugu herriko gizarte eragileen inplikazioa lortzea, talde hauek oso sustraituta baitaude gaiari buruzko ezagutza eta sentsibilitate handia dutelako. Horrez gain, oso hurbil daukagu euskararen eguna, datorren igandean Euskal Herriko leku askotan ospatuko dena.

La administración también debe realizar un esfuerzo especial en ese sentido. Nos parece necesario conseguir la implicación de los agentes sociales del pueblo, dado que están muy arraigados por su gran conocimiento y sensibilidad. Además, está muy cerca el Día del Euskera, que se celebrará el próximo domingo en muchos lugares de Euskal Herria.

Durangon ez dago aipamen berezirik, ezta ekitaldi ofizialik, eragileren baten ekimena izango da erreferentzia bakarra; gure nahia da datorren urtean kontseiluak egingo duen lanetariko bat euskararen egunerako egitarau oparoa antolatzea izatea.

En Durango no se ha mencionado especialmente, ni se ha organizado ningún acto oficial: la única referencia será la iniciativa de algún agente. Deseamos que, de cara al año que viene, una de las tareas del Consejo sea organizar un programa amplio para el Día del Euskera.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andrea (EAJ/PNV)**: Lehendabizi, eskerrak eman araudia egiterako eta lantzerako orduan egon diren ekarpenei, eskerrak eman baita ere Euskara Kontseiluan parte hartuko duten pertsona guztiei, eta esan aldeko bozka emango diogula beharrezkoa ikusten dugulako eta ona delako lan-tresna berri bat izatea. Egia da elebitasuna bermatu egin behar dugula, baina, gaur ere, euskarari, geure hizkuntzari, eman behar diogu bultzada.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: En primer lugar, agradecemos las aportaciones recibidas en la elaboración y el trabajo en torno al reglamento, y agradecemos también a todos la participación en el Consejo de Euskera. Votaremos a favor, porque nos parece necesario y porque es bueno contar con una nueva herramienta de trabajo. Es cierto que debemos garantizar el bilingüismo, pero en la actualidad debemos darle un empujón al euskera, a nuestra lengua.

Egia da igandean Euskararen Eguna dela, baina euskararen alde ez da lan egin behar bakarrik abenduaren 3an, urteko 365 egunetan lan egin behar dugu eta euskaraz bizi 365 egun.

Asimismo, es verdad que el domingo es el Día del Euskera, pero no se debe trabajar a favor del euskera solo el 3 de diciembre, sino los 365 días del año, y vivir en euskera los 365 días del año.

BOZKETA egin ostean.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, eta toki araubideko oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 49. artikulua aurreikusten duen tramitea jarraituz, hauxe

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, y siguiendo el trámite previsto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local,

ONARTZEN DU:

ACUERDA:

**LEHENA**.- **DURANGOKO EUSKARAREN UDAL KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIO NAMENDU ARAUDIA HASIERA BATEAN ONAR TZEA,** testua honako hau da hauxe erabaki du:

**PRIMERO**.- Aprobar **INICIALMENTE** el **REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIO NAMIENTO DEL CONSEJO MUNICIPAL DE EUSKERA,** cuyo texto literal es el siguiente:

**"DURANGOKO EUSKARAREN UDAL KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

**1. ATARIKOA**

Araudi honekin martxan jartzen dugu Durangoko Euskararen Udal Kontseilu berria, Durangoko Udalaren solaskide baliotsua izango dena euskararen inguruko politikei dagokienez.

Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onetsi zenetik, herri administrazioek ez ezik, gizarte eragileek ere pauso garrantzitsuak eman dituzte gure herrian euskararen normalizazioa bideratzeko.

Beste alde batetik, 1998 uztailaren 28an, Eusko Jaurlaritzak EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onetsi zuen. Plana Euskal Autonomi Erkidegoko udal Administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesuak planifikatzeko tresna gisa diseinatuta dago eta euskararen erabilera bultzatzea, belaunaldien arteko transmisioa bermatzea eta hizkuntzaren kalitatea bermatzea dira bere helburu nagusiak.

Zentzu horretan, Durangoko Udalaren eginkizuna euskara eta gaztelania aukera berdintasunean garatu daitezen, benetako elebitasuna lortu eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzea da. Horretarako, hizkuntza politiken koordinazioa hobetzea eta, erakundeen jarduera bultzatze aldera, gizarte eragileen inplikazioa lortzea izango da erabili beharreko filosofia, eta ahalegin hori bat dator herriari dagozkion eztabaida eta erabakietan herritarren parte hartzea

2010eko uztailaren 20an udaleko osoko bilkurak euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal araudia onartu zuen.

Udaleko osoko bilkurak, 2013ko otsailaren 26an, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu zuen.

Aipatutako araudiek aurreikusten dutena aplikatuz, Durangoko Udalak behar beharrezko iritzi dio Euskararen Udal Kontseilu berria eratzeari.

**I.KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

**1. ARTIKULUA: IZAERA**

1.1. Euskararen Udal Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea eta informatzailea da, Durangoko Udalari Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzorde Informatiboaren bitartez atxikia. Organo aholku-emaile eta eztabaidatzaile hau udalerrian hizkuntza normalizazioan diharduten talde, elkarte, erakunde publiko eta pribatu eta pertsona fisikoen ordezkarien harreman-organoa izango da.

1.2. Arautegi honek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek zuzenduko dute kontseilua.

1.3. Kontseilua ez da Udal Korporazioaren menpe egongo eta autonomia funtzionala izango du.

## II. KAPITULUA: FUNTZIOAK

### 2. ARTIKULUA: FUNTZIOAK

2.1. Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, Kontseiluak funtzio hauek beteko ditu:

a) Durangoko euskararen plan estrategikoak diseinatzeko eta garatzeko laguntza eta aholkularitza ematea.

b) Plan estrategikoaren urteko kudeaketa planaren diseinuan eta jarraipenean parte hartzea.

c) Oro har, Euskara Batzorde Informatiboaren eskariari jarraituz, Durangoko udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea.

Egokitzat joz gero, Euskararen Aholku Kontseiluak lantaldeak era ditzake helburu estrategikoei loturik, edo sor litezkeen egoerei aurre egiteko. Halaber, euskara erakunde eta elkarteen ordezkariak ere joan ahal izango dira bileretara, Presidenteak gonbidatuta, baldin eta Euskararen Aholku Kontseilura joateko interesa erakutsi badute eta bere presentzia baliagarria bada unean aztertu behar diren gaietan duten esperientziagatik. Gonbidatu horiek ez dira izango Kontseiluko eskubide osoko kideak Kontseilua eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokienean.

2.2. Euskararen Udal Kontseiluaren funtzioak honela beteko dira: txostenak, irizpenak, proposamenak eta eskariak eginez udaleko gobernu organoei.

## III. KAPITULUA: KONTSEILUAREN OSAKETA

### 3. ARTIKULUA: OSAKETA

3.1. Hauek izango dira eskubide osoko kideak Euskararen Udal Kontseiluan:

Euskararen sustapenean diharduten pertsona fisikoak zein juridikoak. Hau da, udalerrian hizkuntza normalizazioan eragiten duten esparruetan dihardutenak: euskara elkarteak, euskalduntze-alfabetatze arloko erakundeak, ikastetxeak, guraso elkarteak, kultura, aisialdi edo kirol elkarteak, merkataritza eta ostalaritza elkarteak, enpresen ordezkariak, komunikabideak, e.a. Halaber, euskalgintzan esanguratsuak diren gizon-emakumeak. Gehienez 20 kide izango dira, eta gutxienez 8.

a) Pertsona juridikoek (elkarte, erakunde edota fundazioek) baldintzak hauek bete beharko dituzte:

1. Legez eratuta egotea eta dagozkien erregistroetan izena emanda egotea.

2. Estatutuak Durangon helbideratuta izatea edo delegazio ofizial bat edukitzea Durangon.

3. Euskara bultzatzeko jarduerak egiten dituztela ziurtatzea.

4. Irabazi-asmorik ez edukitzea, eta bere barruko egitura eta funtzionamendurako erregimena demokratikoak izatea, indarrean dagoen legediaren arabera.

5. Elkarte, erakunde edota fundazioek ordezkari bana eta ordezkoa izendatuko dute, ahots eta botoarekin.

6. Elkarteetako ordezkariek bermatuko dute euskaraz aritzeko gaitasuna dutela.

b) Pertsona fisikoek euskararen aldeko ekimenak egingo dituzte, irabazi asmorik gabe, eta gaiarekiko interes iraunkorra erakutsiz.

1. Pertsona juridiko zein fisikoek ordezkari bana eta ordezkoa izendatuko dute. Ordezkariek ahotsa eta botoa emateko eskubidea izango dute.

2. Pertsona fisikoek bermatuko dute euskaraz aritzeko gaitasuna dutela.

3.2. Parte tekniko instituzionalen aldetik hauexek izango dira Kontseiluko kide:

a) Kultura arloko zinegotzia, ahotsarekin eta botoarekin. Presidente lana egingo du, alkateak hala izendatu eta gero.

b) Udaleko talde bakoitzeko ordezkari bat. Udaleko talde politikoek pertsona delegatua izendatu dezakete eta halaxe jakinaraziko diote Kontseiluko idazkariari. Halaber, titular bakoitzeko ordezko bat ere izendatu dezakete. Kideen izendapena alkateak egingo du talde bakoitzaren proposamena jaso eta gero. Ordezkariok ahotsa izango dute, baina botorik ez.

c) Udal taldeek bermatuko dute euren ordezkariek euskaraz aritzeko gaitasuna dutela.

d) Euskara saileko teknikaria, Kontseiluko idazkari lana egingo duena. Udaleko dinamizatzailea eta trebatzailea ere joan daitezke bileretara aztertzen diren gaiak hala eskatzen badute. Guztiek izango dute ahotsa, baina botorik ez.

3.3. Durangoko Euskararen Udal Kontseiluak euskararen normalizazioan dabiltzan pertsona adituak deitu ditzake gai zehatz eta bereziak aztertzeko eta aholkularitza emateko. Parte hartu dezakete Kontseiluaren gehiengoak hala proposatzen badu. Parte-hartze hori puntuala izan daiteke, eta Kontseiluak parte-hartze denbora mugatu dezake. Aditu horiek ahotsa izango dute, baina botorik ez.

3.4. Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak kontuan hartuta, Euskararen Aholku Batzordea osatzeko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin (sexu biek, gutxienez, %40ko ordezkaritza) neurriak hartuko dira.

Lege horretan bertan jasotakoari jarraiki, kideak aukeratzeko prozesuan sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak ez dira inola kontseilu-kide gisa onartuko.

**4. ARTIKULUA: KONTSEILUAN PARTE HARTZEA**

4.1. Durangoko Euskararen Udal Kontseiluan parte hartu nahi duten elkarte, erakunde eta pertsona fisikoek Kontseiluko presidenteari bidaliko diote eskabidea. Horrekin batera, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten beharrezko agiriak bidaliko dituzte, baldin eta agiriok udaleko artxiboetan ez badaude.

Kontseiluko partaide izateko eskariak kontseiluak berak onartuko ditu, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren.

4.2. Elkarte edo erakundeek agiri hauek bidali beharko dituzte eskabidearekin batera:

a) Elkarte edo erakundearen estatutuak edota gobernu organoen erabakiak, euskarako atalei edo sailei funtzionatzeko autonomia onartzen dietenak. Estatutuekin batera erregistro ofizial eskuduneko sarrera-zenbakiaren ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu beharko da, eta beren beregi adierazi beharko da erregistro horretan izena eman zen eguna.

b) Helbideratze sozialaren egiaztagiria, elkarte-kide kopurua eta zuzendaritza karguetan dauden pertsonen izena eta kargua.

c) Durangoko Euskararen Udal Kontseiluan arituko den ordezkaria eta horren ordezkoa izendatzeko erabakiaren ziurtagiria.

4.3. Norbere buruaren izenean parte hartu nahi duten pertsona fisikoek ondorengo datuak aurkeztu behar dituzte:

a) Izena eta bi deitura.
b) Kontseiluan parte hartzeko arrazoiak azaltzea.
c) Gaian interesa dutenari buruzko adierazpena eta irabazi asmorik ez dutenekoa.
d) Deialdiak jaso ahal izateko helbidea eta harremanetarako telefonoa.

4.4. Datu horietan aldaketaren bat gertatzen bada, Kontseiluaren Idazkaritzara jakinarazi beharko da, aldaketak jazo eta hilabete baten barruan.

4.5. Federazioren batek kontseiluan parte hartzen badu, federazio horretako kideak ezingo dira kontseiluko partaide izan euren aldetik.

4.6. Kontseiluan parte hartzeak honakoak dakartza: araudia onartzea, Kontseiluaren edukiei buruzko informazioa ematea dena delako elkarte edo erakundeari eta batzarretan hartutako konpromisoak betetzea.

4.7. Kontseiluan parte hartzeagatik ez da inolako ordain-saririk jasoko.

**5. ARTIKULUA: KONTSEILUKO KIDETZA GALTZEA**

5.1. Elkarteek edo erakundeek Durangoko Euskararen Udal Kontseiluko kidetza galduko dute arrazoi hauengatik:

a) Norberaren borondateagatik.

b) Elkartea desegitea edo haren autonomia funtzionala galdu izanagatik, 3.1. b) artikuluari jarraituz.

c) 3. artikuluan ezarritako beste baldintzaren bat ez betetzeagatik.

d) Kontseiluak edo lan batzordeek egindako 10 bileren barruan, ordezkariak, hiru bider jarraian edo bost aldiz txandaka batzarretara bertaratzen ez badira. Esandako horrek udaleko ordezkarientzat ere balio du.

e) 4.4. artikuluak aipatzen dituen aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epean.

f) Kontseiluaren araudia edo gobernuko organoen erabakiak behin eta berriz ez betetzea.

g) Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak izatea, jarduerak egitea edo adierazpenak agertzea, eta Kontseilua ahoz eta botoarekin osatzen duten kideen bi herenak hala uste izatea.

5.2. Pertsona indibidualen kasuan, aurreko ataleko arrazoiak aplikatuko dira, b letra izan ezik.

5.3. Kontseiluaren kidetza galtzea Kontseiluak berak erabakiko du dagokion espedientea tramitatu ondoren, eta honen berri emango zaio dena delako elkarteari edo pertsona indibidualari.

## *IV. KAPITULUA: UDAL KONTSEILUAREN ORGANOAK*

### 6. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN EGITURA

6.1. Durangoko Euskararen Udal Kontseiluak egitura hau izango du:

a) Batzar Nagusia.
b) Presidentea.
c) Presidenteordea.
d) Lan batzordeak.
e) Idazkaria.

### 7. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIA

7.1. Batzar Nagusia Kontseiluaren organo gorena da, eta honela dago eratuta: Presidentzia betetzen duen pertsona, Idazkaritza betetzen duena (udaleko euskara teknikaria) eta 3. artikuluan jasotako elkarte eta erakundeetako ordezkariak, pertsona indibidualak eta udal taldeetako ordezkariak.

7.2. Gainerako elkarte, federazio eta erakundeek, gehienez ere, bi ordezkari izango dituzte Batzar nagusian, eta Kontseiluko idazkariaren aurrean egiaztatuko dute zein den titularra eta zein ordezkoa, betiere, euren estatutuen arabera izendatutako pertsonak beharko dutelarik izan.

### 8. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK

1. Kontseiluaren jarduera-lerro nagusiak ezartzea.

2. Urteko ekintza-plana ebaluatzea, eta, hala balegokio, onartzea, eta gauza bera kudeaketa-memoriari dagokionez.

3. Laguntasuna eskaintzea Durangoko Udalari urteko jarduera egitarauari dagokionez, norberaren iniziatibari ekinez edo udaleko organoek hala eskatuz gero.

4. Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak, bai eta horien aldaketak ere, onartzea.

5. Lan batzordeak izendatzea eta koordinatzea eta euren eginkizunak ikuskatzea.

6. Erakunde instituzionalen batek eskatzen duenean edo egoki dela uste duenean, Batzar Nagusiak gai zehatzei buruzko iritziak eman ahal izango ditu eta proiektu, programa, plan, xedapen orokor edo beste edozein jarduerari buruzko txostena egin ahal izango du.

7. Udaleko sail ezberdinei beharrezko ikusten dituen proposamenak egitea euskararen interesen alde egiteko eta sustatzeko. Egin beharreko guztietan diziplina anitzeko izaera bultzatuko da.

8. Kontseiluari jakinarazten zaizkion euskara arloko salaketa diskriminatzaileak batu eta bideratu dagokion organoen aurrean.

9. Udalbatzak arautegi hau aldatzeko udalaren sail eskudunari behar diren egintzak hastea proposatzea.

10. Entitate berriak sartzeko eskariak onartzea, bai eta barruan daudenak kanporatzea ere, 4. eta 5. artikuluek ezartzen duten moduan.

**9. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA**

9.1. Ohiko Batzar Nagusia bi hilabeterik behin bilduko da gutxienez, presidenteak deialdia egin ondoren. Batzarrak udaletxean egingo dira.

9.2. Batzarra ohiz kanpo bilduko da presidenteak erabakitzen duenean, edo Batzar Nagusiko ordezkarien erdiak hala eskatzen badute.
Kontseiluaren Idazkaritzan eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik hasita zazpi egun naturaleko epea izango da Batzar Nagusi ezohikoaren deialdia egiteko, eta 15 egun naturaleko epea bilera egiteko.

9.3. Ohiko batzarrak, ez ohikoak bezala, gutxienez, 7 egun natural lehenago deituko dira. Presazkoen deialdia egiteko, ostera, gehienez ere 4 egun naturaleko epea izango da. Hala ere, deialdiaren premia Batzar Nagusiak berretsiko du.

9.4. Kontseiluko presidenteak egoki deritzen gaiekin eta proposatzen dizkioten gainerakoekin osatuko da gai-zerrenda. Edozein kasutan, proposamen horiek kontseiluko presidenteari bidali beharko zaizkio, bilera egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

Zerrendan dauden gaiei buruzko dokumentazioa eztabaidarako eta, egoki denean, botaziorako oinarria izango da eta oso-osorik egon beharko da ordezkarien eskura Kontseiluko Idazkaritzan, jendea hartzeko orduetan.

9.5. Batzar Nagusia baliozkoa izateko, eskubide osokoko kideen herena bertaratu beharko da. Beti bertaratu beharko dira presidentea eta idazkaria, edo horien ordezkoak. Quorum hori bilera osoan beharko da.

Lehen deialdian ez badago quorum nahikorik, Batzar Nagusia ordu erdi geroago deituko da modu automatikoan, eta quorum berbera beharko da bilera balioarekin eratzeko.

9.6. Erabakiak adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da eskubide osoko kideen artean. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta botoa emateko eskubidea daukatenak abstenitu egin daitezke.

Gai bati buruzko eztabaida hasi eta ordezkari bat edo bat baino gehiago falta badira, botazioan abstenitu egin direla ulertuko da.

Botazio batean berdinketa dagoenean, berriro emango da botoa.

Botoa pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Titularrak edo Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta dagoen ordezkariak eman beharko du botoa. Postaz emandako botoa ez da onartuko.

Oro har, botoa publikoa izango da. Botoa isilpekoa izango da ordezkarien gehiengo osoak hala eskatzen duenean.

9.7. Batzarreko erabakiak, oro har, bertaratu diren eskubide osoko kideen gehiengo sinplez hartuko dira, 5.1.g) artikuluak ezartzen duenaren kaltetan izan gabe. Hala ere, beren beregi zehazten diren kasuetan gehiengo osoa beharko da. Gehiengo sinplea izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Kontseiluko kide diren erakunde kopuruaren erdia baino gehiago direnean. Edozein modutan, kontseilu sektorialen izaera aintzat hartuz, Batzar Nagusiaren akordioek proposamen ez lotesleen izaera izango dute udal administrazioarentzat.

9.8. Beharrezko ikusiz gero, Batzar Nagusira udaleko beste teknikari batzuk bertaratu ahalko dira, eta baita eztabaidatuko diren gaietan adituak direlako edo eskumenak dauzkatelako gonbidatzen diren pertsonak ere. Hitz egin ahal izango dute, baina ezingo dute botorik eman.
Gonbidapenak presidentziak egingo ditu, Kontseiluaren gehiengoak hala onartu ostean, eta bat etorrita 4.3. artikuluak ezartzen duenarekin.

**10. ARTIKULUA: PRESIDENTZIA**

10.1. Presidentzia euskararen normalizaziorako politikak sustatzeko eta garatzeko eskumena duen udal saileko zinegotzi-delegatuak beteko du, alegia, horretarako alkatetzak izendatutako pertsonak.

10.2. Kontseiluko presidentzia beteko duen pertsona erakunde horretako ordezkari gorena izango da, eta hauek izango dira bere eskuduntzak:

1) Batzar Nagusirako deialdia egitea eta bilerako buru izatea.

2) Batzar Nagusiko bilerak moderatzea, eztabaidak zuzentzea, erabakiak betetzea eta botazioetako berdinketak ebaztea.

3) Arautegi hau interpretatzeko eta aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak ebaztea.

4) Kontseiluaren berezko helburuak betetzen direla zaintzea eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dauden legeetara egokitzen direla zaintzea.

5) Batzar Nagusiak hartzen dituen erabakien berri ematea Korporazioari.

10.3. Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatuko balitz, Presidentea presidenteordeak ordezkatuko du, presidenteak idatzizko delegazioa egin eta gero, eta ordezkapenaren berri emango da bilkura hasitakoan.

**11. ARTIKULUA: PRESIDENTEORDETZA**

Presidenteordetza, kontseiluko kide batek hartuko du bere gain, eta elkarte-sarea ordezkatuko du. Presidenteordea partaide guztien artean aukeratuko da.

Presidenteordetza urtero txandakatuko da kontseiluan parte hartzen duten elkarte guztien artean.

Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatuko balitz, presidenteordea, elkarte beraren izenean kontseilura doan beste pertsonak ordezkatuko du.

Presidenteordeak ondorengo funtzioak beteko ditu:

1. Lan batzordeko eta batzar nagusiko lanen koordinazioa.

2. Euskara, kultura eta hezkuntza batzordeko batzarretara joatea, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe, udaleko euskara planen jarraipena egiteko, betiere, batzordeko gai-zerrendan biltzen diren gaiek bere parte-hartzea eskatzen badute eta presidenteak hala irizten badio.

3. Presidentziak delegatzen dizkion betebeharrak egitea.

**12. ARTIKULUA: LAN BATZORDEAK**

12.1. Lan batzordeak azterketarako eta lanerako organoak dira, eta Kontseiluaren menpe daude. Euren zeregina emandako helburuetarako egokiak diren txostenak eta proposamenak egitea da. Egiten duten guztiaren berri eman beharko diote Batzar Nagusiari. Lan batzordeen proposamenak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu Kontseiluak bere gain hartu ditzan.

12.2. Lan batzordeak iraunkorrak izan daitezke edo gai zehatzak aztertzeko eratu daitezke, eta txosten modura aurkeztuko zaizkio Batzar Nagusiari.

12.3. Lan Batzordeak Batzar Nagusiak sortuko ditu, ofizioz edo Batzar Nagusiko ordezkarien heren batek hala eskatzen duenean, eta izendapena, eraketa eta funtzionamendua finkatuko dira.

12.4. Lan batzordeen bilerak lan batzordea osatzen duten elkarte baten egoitzan egingo dira.

**13. ARTIKULUA: IDAZKARITZA**

13.1. Idazkaria udaleko euskara arloko teknikarietako bat izango da.

13.2. Idazkaritzari dagozkio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa. Idazkaria Batzar Nagusian eta Lan Batzordeetan izango da. Idazkaria Kontseiluko Batzar Nagusiaren bileretan izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

13.3. Hauek dira Idazkariaren funtzioak:

1) Presidentziak aginduta, bileretako deialdiak egitea eta bidaltzea.

